BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4679

EBAZPENA, 2026ko urriaren 19koa, Aniztasunerako eta Inklusiorako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita funts publikoekin finantzatutako Euskal Hezkuntza Sistemako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako bizikidetza positiboari eta ingurune seguruei buruzko dekretu-proiektua.

Bizikidetza positiboa Euskal Hezkuntza Sistemaren funtsezko zutabeetako bat da. Hezkuntzarako eskubideak eskatzen du ikasleak ingurune seguruetan, inklusiboetan, errespetuzkoetan eta indarkeriarik gabekoetan garatu ahal izatea, ongizate pertsonala, soziala eta emozionala errazteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legeak hezkuntza-sistemaren printzipio gidarien artean kokatzen ditu bizikidetza positiboa, inklusioa, ekitatea, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala. Era berean, indarrean dauden curriculum-dekretuek bizikidetzaren hezkuntza-balioa indartzen dute, norberaren, gizartearen eta herritarren gaitasunak garatuz, eta parte-hartze demokratikoa, gatazken kudeaketa baketsua eta erantzukizun partekatua sustatuz.

Ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak esparru komun bat ezarri zuen, lagungarria izan dena eskola-bizikidetza antolatzeko eta ikastetxeei segurtasun juridikoa emateko. Hala ere, hura onartu zenetik gertatu diren gizarte-, teknologia- eta hezkuntza-aldaketek, ikasleen ongizate emozionala eta edozein indarkeria-motaren aurreko babesa indartzeko gero eta behar handiagoarekin batera, esparru hori eguneratzea eskatzen dute.

Izapidetzen ari den dekretuak aurreko erregulazioaren inspirazio-iturri izan zen hezkuntza-helburuari eusten dio, baina eredu prebentiboago, inklusiboago, errestauratiboago eta erantzukideago baterantz egiten du aurrera. Helburu horrekin, erregulazio bakarrean sartzen ditu hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak, bizikidetza-egiturak, plangintza-tresnak, prebentzioko eta hezkuntzako esku hartzeko neurriak eta eskola-ingurune seguruak eta babesleak sustatzeko beharrezkoak diren koordinazio-mekanismoak.

Arauak ikastetxeek metatutako esperientzia eta Bizikasi ekimenetik eratorritako ikaskuntzak txertatu nahi ditu, gatazkak prebenitzeko, arrisku-egoerak detektatzeko, kaltea konpontzeko eta lotura komunitarioak indartzeko eraginkorrak direla erakutsi duten tresnak eta jarduketak finkatuz. Era berean, arauzko babesa ematen die egitura finkatuei, hala nola BAT taldeei eta bizikidetzaren behatokiari.

Dekretuak printzipio hauek ditu oinarri: tratu ona, haur eta nerabeen babes integrala, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea eta ikuspegi leheneratzaile eta sistemiko-ekologikoa, erantzukizunera, erreparaziora eta harremanen leheneratzera bideratutako hezkuntza-erantzunak sustatuz.

Azken batean, arau honen xedea da bizikidetza positiboko eredu bat finkatzea, inklusioa, parte-hartzea, ongizate sozioemozionala, hezkidetza eta indarkeria mota ororen prebentzioa modu planifikatuan sustatzeko, ikasleen garapen integralari eta hezkuntza-komunitate demokratiko, seguru eta kohesionatuak eraikitzeari lagunduz.

Jendaurreko informazioaren ebazpen hau eman den egunera arte, honako izapide hauek egin dira:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari dagokionez, arauaren testua egin aurreko kontsulta publikoa bideratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web-atariaren bidez.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoa betez, Hezkuntzako sailburuak 2026ko ekainaren 9an eman zuen prozedura hasteko agindua.

Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoari jarraikiz, Hezkuntzako sailburuak, 2026ko urriaren 13an, izapidetu beharreko proiektua aldez aurretik onartzeko agindua eman zuen.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lege horrek aurreikusten duen jendaurreko informazioaren izapidea egin behar da, baldin eta herritarren eskubide eta interes legitimoei zuzenean eragiten badie eta artikulu honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, jendaurrean jarriko da Euskal Hezkuntza Sistemako funts publikoekin sostengatutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan bizikidetza positiborako eta ingurune seguruetarako dekretu-proiektua, hogei egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 15. artikuluak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea Euskal Hezkuntza Sistemako funts publikoekin sostengatutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako bizikidetza positiboaren eta ingurune seguruen dekretu-proiektua, hogei (20) egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Hezkuntza Saileko Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/).

Hirugarrena.– Alegazioak aurrez aurre eta elektronikoki aurkez daitezke, aurreko apartatuan aipatutako helbideetan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 19a.

Aniztasunerako eta Inklusiorako zuzendaria,
MIKEL JUARISTI IZAGUIRRE.